

LANGILEEN ALDE, HEMEN ERABAKI

Munduari so jarrita, langileon ikuspegitik baditugu kezkarako arrazoiak. Kapitalismo heteropatriarkal, ekozida eta kolonialak eragindako krisi sistemikoan, zibilizazio krisian, murgildurik gaude. Kapitalismoa berrantolatzen ari da, ez bizitza erdigunean jarriko duen eredu ekonomiko eta sozial berri baten norabidean, bizitzaren eremu gehiago merkan-tizatuz, planetaren muga biofisikoen gainetik ustiaketa areagotuz eta langile gero eta gehiago desjabetuz baizik. Sozialki bidegabea, ekologikoki sostengaezina eta desiragarria ez den jendarte ereduari bizi gara.

Kapitalismoaren berrantolaketa autoritarismoaren eta faxismoaren eskutik datorkigu. Nazioartean zabaltzen ari da oldarraldi erreakzionarioa eta eskubideak jomugan ditu. Asko eta asko dira haren aurpegiak: Trump, Milei, Le Pen, Meloni, Abascal... Ordezkaritza politiko handia eskuratu edo Gobernu buru izatera iritsi dira eta hegemonia kultural-lean ere aurrera egiten ari dira. Oldarraldiari aurre egin eta kapitalismoa gainditzea mundu mailako erronka da, beraz. Elkartasuna eta aliantza internazionalistak beharrezkoak dira baina, era berean, alternatiba langileen protagonismo-tik eta herri zapalduen burujabetza prozesuetatik bultzatu behar da. Herrien autodeterminazio eskubidearen alde egi-nez, eraldaketa sozialean aurrera eginez.

LABen X. Biltzar Nagusian estrategia independentista eral-datzailea elikatzen jarraitzeko ardura geure egin genuen. Ordutik, langileei lan eta bizi baldintza duinak ziurtatzeko borroka sindikal eta sozial ugaritan parte hartu dugu, egu-nez egun eraldaketa feminista, ekosozialista eta antirrazista bultzatuz.

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Es-parrua zabaltzen jarraitzeko inizatibaz jotzen ari gara, Euskal Herrian bultzatuz estatuetan posible ez diren al-daketak. Izan da aurrerapenik denbora tarte honetan: bo-rrokaren bidez negoziazio kolektiboaren estaldura maila hobetzea lortu dugu; bertako hitzarmenek lehenetsuna

Desde nuestra perspectiva como clase trabajadora tenemos motivos para la preocupación ante el contexto global. Es-tamos inmersas en la crisis sistémica del capitalismo hete-ropatriarcal, ecocida y colonial, en una crisis civilizatoria. El capitalismo se está reorganizando, pero no en la dirección de un nuevo modelo económico y social que ponga la vida en el centro, sino mercantilizando más ámbitos de la vida, aumentando la explotación por encima de los límites bio-físicos del planeta y expropiando a cada vez más trabaja-dores y trabajadoras. Vivimos en un modelo de sociedad socialmente injusto, ecológicamente insostenible y nada deseable.

La reorganización del capital viene de la mano del autori-tarismo y el fascismo. La ofensiva reaccionaria se está ex-tendiendo a nivel internacional y nuestros derechos están en su punto de mira. Son muchos los rostros de esa ofensi-va: Trump, Milei, Le Pen, Meloni, Abascal... Todos ellos han adquirido una gran representación política o han llegado a presidir gobiernos y avanzan en la hegemonía cultural. Por ello, afrontar la ofensiva y acabar con el capitalismo supo-ne también un desafío a nivel mundial. La solidaridad y las alianzas internacionalistas son necesarias, pero, al mismo tiempo, hay que impulsar la alternativa desde el protago-nismo de la clase trabajadora y los procesos soberanistas de los pueblos oprimidos, apostando por el derecho de autodeterminación de los pueblos y avanzando en la trans-formación social.

En el X. Congreso Nacional de LAB asumimos la responsa-bilidad de seguir promoviendo la estrategia independen-tista transformadora. Desde entonces, hemos participado en numerosas luchas sindicales y sociales para garantizar a la gente trabajadora unas condiciones de trabajo y vida dignas. Día a día impulsamos la transformación feminista, ecosocialista y antirracista.

Estamos actuando con iniciativa para seguir ampliando el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social

izan dezaten lege aldaketa behartu dugu; langile publikoen soldata eta lan baldintzak bertan erabakitzeke eskubidea aldarrikapen eta mobilizazioen erdigunean kokatu dugu; etxeko langileen negoziazio kolektiboaren alde borrokatu dugu; pentsiodunekin batera mobilizatu, eta pentsioak KPIren arabera eguneratzea lortu dugu; Greba Feminista Orokorrean zaintzarako eskubide unibertsala aldarrikatu dugu. Langileontzat garrantzitsuak diren hainbat gai (osasungintza, etxebizitza, hezkuntza, zaintza) modu batean edo bestean agenda soziosindikalean eta politikoan daude, eta borrokan jarraitzen dugu, politika publikoetan eragiteko eta eraldaketa sakonak bultzatzeko determinazioa dugulako.

Euskal Errepublika sozialista eta feministarako bidean, EAEn eta, beste maila batean, Nafarroan, egungo marko juridiko-politikoak gainditzeko baldintza berriak sortuak daude. Hiru dira erronka nagusienak: Euskal Herriaren nazio izaera aitortzea; erabakitzeke eskubidea jasotzea; eta egungo autogobernu maila gainditzea, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eratzeke eskuduntza berriak lortuz. Ipar Euskal Herrian ere, instituzionalizazioan urrats berrien beharra identifikatu da, eta eskumen handiagoak izango lituzkeen egitura baten aldeko jarrerak indartzen ari dira.

Etorkizun ziurgabearen aurrean, geure burua gobernatzeke boterea izatea da babes neurririk hoberena. Horregatik, erabaki ahalmen handiagoa nahi dugu, langileen lan eta bizi baldintzak duintzeko bitarteko gehiago eskuratzeko. Aldaketa sozialak zein politikoak bultzatzeko eragile aktibo izango garela adierazi izan dugu eta norabide horretan ari gara lanean, bai ekintza sindikalean eta bai maila soziopolitikoan. Burujabetza maila handiagoa izango duen marko berri baterako aukerak sortzen ari gara, eta, era berean, sortzen diren aukerak baliatu egin behar ditugu langileen interesekoak diren gaietan aurrerapenak lortzeko, baita pedagogia egiteko ere, gure bizi baldintzen gaineko erabaki ahalmena handitzeak dituen onuren inguruan.

Aipatu erronkei heltzeko eraldaketa sozialaren eta burujabetzaren alde gauden eragileon arteko elkarlana helburu izan dugu. Agenda integral bateratu baten aldeko indarrak biltzearen aldeko jarrera argia adierazi izan dugu eta, elkarlan integral horren faltan, bi norabidetan lan egin dugu: batetik, Euskal Herrian posible diren aldaketen aldeko iniza-

(MVRLPS), fomentando en Euskal Herria cambios que no son posibles en los estados. Ha habido avances en este tiempo: hemos conseguido mejorar el nivel de cobertura de la negociación colectiva a través de la lucha; hemos forzado un cambio legislativo para garantizar la prioridad aplicativa de los convenios de aquí; respecto a las y los trabajadores públicos, hemos situado en el centro de las reivindicaciones y las movilizaciones el derecho a decidir aquí sus salarios y condiciones laborales; hemos luchado por la negociación colectiva de las trabajadoras del hogar; nos hemos movilizado junto a las y los pensionistas y hemos conseguido la actualización de las pensiones según el IPC. Algunos de los temas más importantes para la clase trabajadora (sanidad, vivienda, educación, cuidados) están de una u otra manera en la agenda sociosindical y política, y seguimos luchando, porque tenemos la determinación de incidir en las políticas públicas e impulsar cambios profundos.

En el camino hacia una República Vasca socialista y feminista, en la CAV y, a otro nivel, en Navarra, se han creado nuevas condiciones para superar el actual marco jurídico-político. Los tres retos principales son: el reconocimiento de la identidad nacional de Euskal Herria; garantizar el derecho a decidir; y superar el actual nivel de autogobierno, con nuevas competencias para el desarrollo del MVRLPS. Asimismo, en Ipar Euskal Herria se ha identificado la necesidad de dar nuevos pasos en la institucionalización y cobran fuerza las posiciones a favor de una estructuración con mayores competencias.

La mejor medida de protección ante un futuro incierto pasa por poder tener el poder de gobernarnos. Queremos una mayor capacidad de decisión para tener más medios para dignificar las condiciones de trabajo y vida de la clase trabajadora. Hemos venido señalando que vamos a ser un agente activo en el impulso de los cambios sociales y políticos y estamos trabajando en esa dirección, tanto en la acción sindical como a nivel sociopolítico. Estamos creando oportunidades para un nuevo marco con mayor grado de soberanía y, al mismo tiempo, debemos aprovechar las oportunidades que surjan para conseguir avances en temas de interés para las y los trabajadores, así como para hacer pedagogía sobre los beneficios que conlleva aumentar la capacidad de decisión sobre nuestras condiciones de vida.

Con el fin de abordar dichos retos, nos hemos propuesto impulsar la colaboración entre los agentes que estamos a

tibak indartu ditugu; bestetik eremuz eremu adostasunak bilatzearen aldeko jarrera izan dugu.

Lan horren emaitza da Hego Euskal Herrian, Espainiako Estatukoa baino altuagoa izango den Lanbidearteko Gutxieneko Soldata propio baten aldeko borroka indartzeko LAB, ELA, ESK, Steilas, Hiru eta Etxalde sindikatuen artean lortutako akordioa. Gutxieneko soldata duin eta propio baten alde abiatutako borroka garrantzia berezia du; bate-tik, milaka eta milaka langileren bizi baldintzak hobetzeko aukera ematen duelako; eta, bestetik, gutxieneko soldata hemen bertan erabakitzeak ikuspegi subiranistatik aurre-rapausoa dakarrelako. Gainera, ekimenak aukera ematen du marko juridiko-politiko berritzeko irekia dagoen ez-tabaida hauspotzeko eta, era berean, langileen bizi bal-dintzak duintzeko ezinbestekoak diren gaitan aurrera-pausoak emateko.

Aldi berean, Pentsiodunen Mugimenduak ere martxan du gutxieneko pentsioa igotzeko Herri Ekimen Legegilea (HEL). Honela, 2020ko urtarrilaren 30eko Greba Oroko-rrean egindako bi aldarrikapenak —gutxieneko soldata eta gutxieneko pentsio duinak— gauzatzeko egiasmoak abian ditugu.

Lanbidearteko Gutxieneko Soldata propio bat ezartzeko EAEn zein Nafarroan bi bide osagarri jarri ditugu martxan: patronalaren eta sindikatuen artean negoziatu beharreko lanbidearteko akordioa eta eskuduntza eskuratzeko HELa. Confebasketik uko egin dio sindikatu guztiek eta Legebiltzarraren gehiengoak eskatutakoari, alegia, gure errealitatearen arabera gutxieneko soldata bat ezartzeko negoziatio mahaia eratu eta negoziatio prozesua abiatzeari. Nafarroari dagokionez, CEN patronalak negoziatio mahaia ez sortzeko aliatu izan ditu CCOO eta UGT. Patronalek langileen prekaritatearen eta esplotazioaren aldeko hautu argia egin dute eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak bateko zein besteko patronalak interpelatu eta presionatu beharko lituzkete jarrera zuzendu dezaten. HELari dagokionez, EAEn tramitera onartu da, baina ez Nafarroan, Foru Hobekuntzan horretarako eskuduntzarik ez dagoela argudiatuta.

Bidea erraza izango ez dela jakitun, bertako gutxieneko soldata propioa izan arte iniziatiba berriak hartzen eta mo-bilizatzen jarraituko dugu.

favor de la transformación social y la soberanía. Lo hemos hecho con una clara disposición a aunar fuerzas en favor de una agenda integral conjunta. Sin embargo, a falta de una colaboración de esas características, hemos trabajado en dos direcciones: por un lado, con iniciativas para posibilitar cambios en Euskal Herria; por otro, teniendo una actitud favorable a alcanzar consensos por ámbitos temáticos.

Fruto de este trabajo es el acuerdo alcanzado en Hego Euskal Herria entre los sindicatos LAB, ELA, ESK, Steilas, Hiru y Etxalde para reforzar la lucha por un Salario Mínimo Interprofesional propio que supere el del Estado español. La lucha por un salario mínimo digno y propio tiene espe-cial importancia, por un lado, porque permite mejorar las condiciones de vida de miles y miles de trabajadoras y tra-bajadores; y, por otro, porque decidir aquí el salario míni-mo supone un avance desde el punto de vista soberanista. Además, la iniciativa permite ahondar en el debate abierto sobre la renovación del marco jurídico-político y dar nuevos pasos en aquellas cuestiones que resultan imprescindibles para dignificar las condiciones de vida de la clase trabaja-dora.

Paralelamente, el Movimiento de Pensionistas tiene en marcha una Iniciativa Legislativa Popular (ILP) para elevar la pensión mínima. De este modo, contamos con sendas inciativas a favor de las dos reivindicaciones de la Huelga General del 30 de enero de 2020: salario mínimo y pensio-nes mínimas dignas.

Para establecer un Salario Mínimo Interprofesional propio tanto en la CAV como en Nafarroa hemos impulsado dos vías complementarias: el acuerdo interprofesional a nego-ciar entre patronal y sindicatos y la ILP. La patronal Confe-bask ha rechazado la petición de todos los sindicatos y de la mayoría parlamentaria de constituir una mesa de nego-ciación y abrir un proceso de negociación para establecer un salario mínimo acorde con nuestra realidad. En cuan-to a Nafarroa, la patronal CEN se ha aliado con CCOO y UGT para renunciar a crear una mesa de negociación. Las patronales han optado claramente por la precariedad y la explotación de las y los trabajadores y tanto el Gobierno Vasco como el Gobierno de Navarra deberían interpelar y presionar a las patronales para que rectifiquen su postura. En cuanto a la ILP, en la CAV se ha admitido a trámite, pero no en Nafarroa, alegando que no hay competencia para ello en el Amejoramiento Foral.

Aurtengo ikasturtean urrats garrantzitsuak emango dira, beraz, 'hemen lan egin eta hemen erabaki' logika indartuz, baita Ipar Euskal Herrian ere. Negoiazio kolektiborako marko propioa eta euskal esparru sozioekonomiko propioa eratze publiko egin dugun proposamena aurkezte eta lantzen ari gara hainbat eragilerekin. Biltzar Arteko Batzar honetan euskal esparru sozioekonomiko propioa nahiz Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eratzen jarraitzeko borondatea berresten dugu, baita horretarako ezinbestekoa den estatus politikoen berrikuntzarako gure konpromisoa ere.

Euskal Herriaren askapen nazionalaren eta langile klasearen askapen sozialaren alde bere onena emango du LABek, gaur-gaurkoz posible denaren mugak zabalduz. Olatu erreakzionarioari aurre egiteko haxe da gure errezeta: kontrabotere sindikalismoa, independentista, feminista, antirrazista, ekosozialista. Euskal Sindikalismo Eraldatzailea.

Conscientes de que no va a ser un camino fácil, seguiremos tomando nuevas iniciativas y movilizándonos hasta conseguir un salario mínimo propio.

Este curso se van a dar pasos importantes para reforzar la lógica de 'aquí trabajamos, aquí decidimos' y en esta Asamblea Intercongresual reafirmamos, por un lado, nuestra voluntad de continuar impulsando el marco socioeconómico vasco propio y el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social, así como nuestro compromiso respecto a la renovación de los estatus políticos imprescindibles para ello.

LAB dará lo mejor de sí en favor de la liberación nacional de Euskal Herria y de la liberación social de la clase trabajadora, ampliando los límites de lo que hoy es posible. Nuestra receta para hacer frente a la ola reaccionaria es el sindicalismo de contrapoder, independentista, feminista, antirracista y ecosocialista. En definitiva, el sindicalismo vasco transformador.